

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI), 2011KO MARTXOA

2011ko martxoan %8 bidaiari gehiago etorri da Euskal Aera

Igarotako gau kopurua %9 gehitu da

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak: Eustaten datuen arabera, 2011ko martxoan 175.399 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal AEko hotel-establezimenduetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 13.514 gehiagok; horrenbestez, %8ko gehikuntza izan da. Araban %5 gehitu da etorritako bidaiari kopurua eta Bizkaian %16; Gipuzkoan ez da aldaketarik izan (%0).

Estatutik etorritako bidaiari kopuruak %7 egin du gora, eta atzeritik etorritakoen kopuruak %12. Estatutik etorritako bidaiarien kopurua Araban (%10) eta Bizkaian (%18) gehitu da, baina Gipuzkoan %7 egin du behera kopuru horrek. Bizkaia etorritako atzeritar kopurua gehitu egin da (%13), baita Gipuzkoara etorritakoena (%22) ere; baina Arabara etorritako atzeritar kopuruak %18 egin du behera.

Beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritako bidaiarien artean gehitu egin dira honakoetatik etorritakoen ehunekoak: Katalunia, Gaztela-Mantxa, Kantabria eta Aragoi. Besteak beste Madril, Gaztela eta Leon, Errioxa eta Extremaduratik etorri direnen ehunekoek, ordea, behera egin dute. Atzeritarren artean, Frantziatik, Italiatik, Portugaldik eta Iberoamerikatik etorritakoen kopurua gehitu da gehien. Eta behera egin duten kopuruen artean Alemaniatik, Erresuma Batutik eta Danimarkatik etorritakoen kopuruek izan dute beherakada handiena.

2011ko martxoan 314.789 gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, aurreko urteko martxoarekin alderatuta gaua igaro dutenen kopurua %9 gehitu da, guztira ia 25.735 gau gutxiago igaro baitituzte. Araban eta Bizkaian urte batetik besterako gau kopuruaren bilakaera positiboa izan da, %10 eta %17 igo da hurrenez hurren kopuru hori. Baina Gipuzkoan %1 egin du behera.

Batez besteko egonaldiaren iraupena ia berdin mantendu da 2010eko martxoaren aldean, Euskal AE osoan: batez beste 1,79 eguneko egonaldia eman zen 2010eko martxoan eta urte honetako martxoan kopuru bera. Lurraldeka, Araban 1,73 egunetik 1,82 egunera igo da egonaldia, eta Bizkaian 1,80 egunetik 1,81 egunera; baina Gipuzkoan kopuru hori murriztu egin da: 2010eko martxoan 1,79 egunekoa zen eta 2011ko martxoan 1,77 egunekoa.

Euskal AE osoko plazen okupazio mailak %9 egin du gora, 2011ko martxoan %38,82koa izan baita. Gorakada horrek hiru lurraldeetan izan du eragina: Araban %11 gehitu da okupazio maila: 2010eko martxoan %32,13 zen eta urte honetako martxoan %35,70. Bizkaian %16 gehitu da: 2010eko martxoan %35,16 eta 2011ko martxoan %40,77. Eta azkenik Gipuzkoan %1 gehitu da: 2010eko martxoan %37,43ko okupazioa izan zen eta urte honetako martxoan %37,66koa.

NEKAZARITZA-TURISMOKO ESTABLEZIMENDUAK

2010eko martxoaren aldean %13 bidaiari gutxiago etorri da eta %16 gau gutxiago igaro dituzte

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetako bidaiari-sarrerak: Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan 8.555 bidaiari erregistratu dira martxoan; beraz, 2010eko martxoko kopuruarekin alderatuta %13 gutxiago etorri dira. Lurrealdean, Araban %10 jaitsi da kopurua, Bizkaian %15 eta Gipuzkoan %13. Estatutik etorritako bidaiari kopurua %14 jaitsi da Euskal AEn: Araban %10 jaitsi da, Bizkaian %16 eta Gipuzkoan %14. Erkidegora %2 atzerritar gehiago etorri da, eta horien kopuruak nabarmen egin du gora Gipuzkoan. Araban eta Bizkaian, aldiz, atzerritar kopuruak beherakada handia izan du ehunekoak aintzat hartuta.

Euskal AEko nekazaritza-turismoetan guztira 18.227 gau igaro dituzte bidaiariek martxoan, aurreko urtean baino %16 gutxiago. Hiru lurraldeetan egin du behera kopuru horrek: Araban %22, Bizkaian %10 eta Gipuzkoan %17.

2010eko martxoaren aldean, %4 jaitsi da biztanle bakoitzak Euskal AEn batez beste igarotako egun kopurua; 2010eko martxoan 2,21 egun igaro zituzten eta urte honetako martxoan 2,13 egun. Araban %13 jaitsi da kopuru hori, 2010eko martxoan batez beste 2,37 egun igaro zituztelako eta 2011ko martxoan 2,06. Bizkaian, aldiz, %6 gehitu da egonaldia; 2010eko martxoan 2,19 egun igaro zituzten batez beste bidaiariek eta 2011ko martxoan 2,33 egun. Azkenik Gipuzkoan %5 jaitsi da batez besteko egonaldia; 2010eko martxoan 2,16 egun igaro zituzten eta urte honetako martxoan 2,06 egun.

Plazen okupazio mailak %16 egin du behera: %18,35etik %15,34ra igaro da, hiru lurraldeetan egin duelako behera okupazioak. Araban %28 egin du behera, Bizkaian %10 eta Gipuzkoan %14.

1. taula: Euskal AEko hotel eta nekazalturismoko establezimenduak Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	03 2011	(%)	03 2010	(%)	Δ %	03 2011	(%)	03 2010	(%)	Δ %	03 2011	(%)	03 2010	(%)	Δ %	03 2011	(%)	03 2010	(%)	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	314.789	100	289.054	100	9	48.300	100	43.848	100	10	157.434	100	135.011	100	17	109.055	100	110.195	100	-1
Estatukoak	228.777	73	212.303	73	8	39.223	81	34.438	79	14	110.690	70	94.688	70	17	78.864	72	83.177	75	-5
Atzerrikoak	86.012	27	76.751	27	12	9.077	19	9.410	21	-4	46.744	30	40.323	30	16	30.191	28	27.018	25	12
Hiriburua	202.157	64	184.230	64	10	37.430	77	30.660	70	22	107.027	68	91.259	68	17	57.700	53	62.311	57	-7
Litoral	31.418	10	29.862	10	5	-	-	-	-	-	8.132	5	9.396	7	-13	23.286	21	20.466	19	14
Barnealdea	81.214	26	74.962	26	8	10.870	23	13.188	30	-18	42.275	27	34.356	25	23	28.069	26	27.418	25	2
BIDAIARIEN SARRERAK	175.399	100	161.885	100	8	26.478	100	25.335	100	5	87.181	100	74.950	100	16	61.740	100	61.600	100	0
Estatukoak	130.671	74	122.024	75	7	22.203	84	20.117	79	10	65.096	75	55.356	74	18	43.372	70	46.551	76	-7
Atzerrikoak	44.728	26	39.861	25	12	4.275	16	5.218	21	-18	22.085	25	19.594	26	13	18.368	30	15.049	24	22
Hiriburua	111.787	64	103.602	64	8	18.893	71	16.223	64	16	58.747	67	50.496	67	16	34.147	55	36.883	60	-7
Litoral	16.681	10	15.173	9	10	-	-	-	-	-	4.721	5	5.465	7	-14	11.960	19	9.708	16	23
Barnealdea	46.931	27	43.110	27	9	7.585	29	9.112	36	-17	23.713	27	18.989	25	25	15.633	25	15.009	24	4
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,79		1,79		0	1,82		1,73		5	1,81		1,80		1	1,77		1,79		-1
BETETZE-MAILA PLAZAKA	38,82		35,47		9	35,70		32,13		11	40,77		35,16		16	37,66		37,43		1
Hiriburua	44,87		40,29		11	40,53		32,28		26	48,94		41,38		18	41,35		43,98		-6
Litoral	36,50		33,59		9	-		-		-	24,52		25,15		-3	44,00		39,70		11
Barnealdea	29,61		27,89		6	25,32		31,80		-20	31,49		27,25		16	28,90		27,10		7
BETETZE-MAILA GELAKA	49,21		44,57		10	46,10		40,19		15	53,58		46,22		16	44,88		44,44		1
Hiriburua	57,69		51,23		13	53,08		41,49		28	64,50		54,88		18	50,21		52,38		-4
Litoral	42,15		39,20		8	-		-		-	31,23		31,46		-1	48,76		44,42		10
Barnealdea	37,73		34,98		8	29,12		36,77		-21	41,65		35,34		18	35,77		33,90		6
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	18.227	100	21.721	100	-16	3.645	100	4.677	100	-22	5.270	100	5.851	100	-10	9.312	100	11.193	100	-17
Estatukoak	16.413	90	20.448	94	-20	3.507	96	4.478	96	-22	4.261	81	5.296	91	-20	8.645	93	10.674	95	-19
Atzerrikoak	1.814	10	1.273	6	42	138	4	199	4	-31	1.009	19	555	9	82	667	7	519	5	29
BIDAIARIEN SARRERAK	8.555	100	9.827	100	-13	1.772	100	1.976	100	-10	2.266	100	2.675	100	-15	4.517	100	5.176	100	-13
Estatukoak	8.151	95	9.430	96	-14	1.724	97	1.905	96	-10	2.129	94	2.525	94	-16	4.298	95	5.000	97	-14
Atzerrikoak	404	5	397	4	2	48	3	71	4	-32	137	6	150	6	-9	219	5	176	3	24
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,13		2,21		-4	2,06		2,37		-13	2,33		2,19		6	2,06		2,16		-5
BETETZE-MAILA PLAZAKA	15,34		18,35		-16	14,01		19,54		-28	13,69		15,20		-10	17,15		20,01		-14
BETETZE-MAILA GELAKA	17,63		20,09		-12	15,99		22,05		-27	16,73		16,51		1	19,11		21,79		-12

Iturria: EUSTAT. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (ETHI)

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01.

ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua